



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## Arriaga Antzokiak antzerki eta kabaret espiritua duen kontzertu dibertigarria eskainiko du datorren astean, Gurutze Beitiaren eskutik

- Gurutze Beitia izango da protagonista ekainaren 21ean eta 22an, 19:30ean, *Tiempos de Cabaret y Cambalachen*, Iñaki Maruri eta Ander Pena musikariek lagunduta, eta Calixto Bieitoren zuzendaritzapean.

**Bilbo, 2022ko ekainaren 14a.**- Arriaga Antzokiak datorren astean, hilaren 21ean (asteartean) eta 22an (asteazkenean), berreskuratu egingo du 2020ko ekaina/uztailean, koronabirusaren itxialdiaren ostean, ateak berriro irekitzeko denboraldi berezarako Antzokiak berak ekoiztutako ikuskizunetako bat. ***Tiempos de Cabaret y Cambalache*** ikuskizun musikal dibertigarriaz ari gara, zeinaren protagonista gure inguruko aktore karismatikoenetako bat baita: **Gurutze Beitia**.

Komikotik tragikora doan oso erregistro zabala biltzeko gai den eta, aldi berean, abeslari indartsu eta pertsonala izan daitekeen antzezle bat badago, hori Gurutze Beitia da, zalantza gabe. Cambalache eta Kabaret garaietan bizi gara, izenburuak dioen bezala, eta eszenatokitik kontatzeko eta kantatzeko ordua da. Keinua, imintzioa, oihua eta eromena oso antidoto ahaltzuak izan dira beti krisi garaietan. Eta are gehiago musikaz janzten direnean. Nahikoa da *Goodbye to Berlín*eko Alemania edo Piazzolaren edo Goyenecheren Argentina gogoraraztea.

Izan ere, ikuskizunak kontzertu baten osagai ugari du, baina oso espirtu teatrala eta kabareteroa du, eta horretan ekarpen handia egiten du Gurutze Beitiaren antzezpenak, zalantzarik gabe; eta baita aukeratutako errepertorioaren izaerak ere, *Cabaret* abestitik hasita, *Willkommen*, *Mack the knife* edota *Balada para un loco* bezalako himno ahaztezinak baititu.

*Tiempos de Cabaret y Cambalache* Arriaga Antzokiaren ekoizpen bat da, eta **Calixto Bieitoren** zuzendaritza eta koordinazio eszenikoa ditu. Gurutze Beitiaren antzezpena indartzeko, zuzenean arituko dira **Iñaki Maruri** (pianoa) eta **Ander Pena** (perkusioa) musikariak. Gainera, proposamenak ikus-entzunezkoak ditu, **Sergio Verde** sortzailearen eskutik.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- 18 euro (beherapenekin)
- Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

## ***Tiempos de Cabaret y Cambalache***

Zuzendaritza eszenikoa: **Calixto Bieito**  
Antzezleak: **Gurutze Beitia**  
Pianoa: **Iñaki Maruri**  
Perkusioa: **Ander Pena**  
Ikus-entzunezkoak: **Sergio Verde**  
Ekoizpena: **Arriaga Antzokia**

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)